

Errepublika garaiko izenak eta 1939ko dekretua

MIKEL GORROTXATEGI NIETO

ATARIKOA

Onomastikak orokorrean hiru atal nagusi ditu, edozein hiztunek ongi be-
reizten dituenak. Lehengo eta behin toponimia, gizataldeari dagokiona;
bigarrena, deitura, familia edo leinuari dagokio. Azkenean ponte izena dugu,
norberari dagokiona. Azken atal hau jorratu nahi izan dut XX. mendean Eus-
kal Herrian pertsona izenen mailan egon zen iraultza aztertzeko. Gogoan izan
behar dugu deitura eta toponimoen kasuetan ez bezala zerrenda hotz eta lu-
ze hauen atzean pertsonak daudela, eta kasu honetan ez edonolakoak, guztien
arteak ahulenak, hauskorrenak: umeak.


Lan honetan euskal izenen erabileraz gain diktaturak ezarritako zapal-
kuntza ere aztertu nahi izan dut. Zail da horrelakoa pairatu ez duenarentzat
zer sentitzen den asmatzea. Baina ongi dut gogoan klaseko lehenengo egune-
an irakasle guztiekin errepikatzen zen errituala, zerrenda pasa eta nire izena
esatean altxatu eta esan:

“Mi nombre no es Miguel, me llamo Mikel”

Zorionez beti emaitza ona lortzen ez banuen ere ez nintzen bizi Gerra os-
teko giroan. Seguru asko hori izan da izenekiko interesa izatearen arrazoieta-
ko bat eta, agian, lan hau burutzearena ere. Zernahi gisaz, lan hau bere alabei
Miren eta *Edurne* eman eta 1936ko abenduaren bostean Argantzunen desa-
gertarazitako aititari eskaini nahi diot.

1. Euskal izenen historia laburra

1938ko debekua ulertzeko nahitaezkoa da euskal izenen historia ulertzea
eta hau da hitzaurre honen helburua.



Euskal izenen lehenengo testigantzak erromatar garaikoak dira¹. Bertan inperio osoan ohikoak zirenez gain (*Lucio, Caius...*) euskarazkotzat jo ditza-kegun banaka batzuk aurki daitezke (*Bihotz, Andere...*). Egoera hau, bestalde, arrunta izan zen inperio osoan, aurkitu diren idazkiak latinez mintzo edo gu-xienez latina ezagutzen zuen taldearen hondarrak baitira. Gogoan izan be-har da euskara hutsez bizi zen jendeak ez zuela idatzitako ezer utzi, inperio-ko beste hizkuntza askotan gertatu zen bezala.

Geroagoko urteetan datu hutsunea dago, oso-oso urriak baitira hilarri eta idazkiak. XI. mendearen amaieran monasterioetako dokumentazioa dela medio, berriro azter daiteke Euskal Herriko inguru zehatz batzuetako onomastika. Do-kumentazio horretan Europa osoan ohikoak ziren izenekin batera, gehienak kris-tauak, beste izen asko ikus ditzakegu: *Anderezu, Eneko, Gartzia, Hobeko, Otsan-da...* Gainera, garai hartako testuetako izenik ohikoenak aipatutako euskal izen horiek dira sarritan. Euskal izenen indarra erraz ikusten da mugakideak diren lu-rraldeetako dokumentazioa arakatzean, hor ere euskal jatorriko izenak arruntak baitira. Bizitasun honen lekukotza toponimian ere bada eta hor ditugu: *Enekuri, Erremelluri, Obekuri, Otsandategi, Otsanduri...* eta holako leku izenak².

Luterok eragindako Erreformari aurre egiteko Erromako Eliza Katoli-koak kontzilioa burutu zuen hamaseigarren mendearen erdialdean Trenton. Elizaren doktrinaz eta Elizaren antolakuntzari buruzko erabakiak hartu ziren bertan. Onomastika alorrean eragin handiena izango zuen erabakia elizaren errolda sortzea izan zen. Horren ondorioz, beste gauza batzuen artean, egun ezagutzen dugun izendatze eredua finkatu zen.

Larria izan zen, ordea, pertsonen izenen gaineko erabakia. Aurrerantzean kristau guztiek izan beharko zuten santutegiko izena eta *Eneko, Andere, Ho-beko*, etab. erroldatik kanpo geratu ziren. Horretaz gain, Elizak tokian toki-ko administrazio zibilaren hizkuntza hartu zuen bere erroldetan eta ondorioz *Mikel, Bikendi, Jurgi* eta horrelakoen ordez *Miguel / Michel, Vicente / Vincent* eta *Jorge / George* agertu ziren aurrerantzean. Ezaguna denez, aldaketa hau ez zen egun batetik bestera gauzatu³.

¹ Ikus Joakin Gorrotxategiren *Estudio Sobre la Onomastica Indigena de Aquitania* lana.

² Aipatutako toponimoetan *Eneko, Hobeko, Erramel* eta *Otsanda* pertsona izenak ditugu.

³ Ikus Henrike Knörr-ek idatzitako "Nombres de persona en el País Vasco: cuestiones históricas y de normalización" lanean bildutakoa.

Aurrekoaren ondorioz euskal izenak zokoratzen joan ziren. Erdal kiderik gabekoak arinago desagertu ziren. Besteek berriz, gehiago iraun zuten, errazagoa baitzen elizan erdarazkoa idatzita agertu arren euskal kidea erabiltzea.

XIX. mendean Euskal Herriko leku askotan ez zen euskal izenik erabiltzen eta hilerrietako izenak begiratzekotan ez dugu alderik ikusiko euskara egiten zen herrietatik erdaraz egiten zen beste edozeinetara.

1897an Sabin Arana Goiri jaunak *Egutegi Bizkattarra* argitaratu zuen helburu argi batekin: euskaldunei euskal izen egokiak eskaintzea eta, munduko hizkuntza guztietan bezala, euskarak ere bere izendegi berezia izatea. Baina, erabilitako irizpideak oso eztabaidagarriak izan ziren, uko egin baitzion orduko tradizioari⁴ eta izen berriak asmatu zituelako. Berari zor zaio emakume izenak *-(n)e* amaiera izateko gaur egun dagoen joera.

Harrera ez zen hasieran oso ona izan, proposatutako izen askok euskal tradizioaren kontrakoak zirelako. Hori gutxi balitz, Gasteizko elizbarrutiko apezpikuak euskal izenen erabilera debekatu zuen. Azkenean, XX. mendearen hasieran Erromak baimena eman zuen bataioetan jartzeko.

Aranak ondotxo zekien aurkeztutako izenek ez zutela bide erraza izanen.

“Ya sé que los nombres euzkerizados que se publican aquí sólo hallarán buena acogida entre muy pocos euzkeldunes, pues la generalidad de ellos están exotizados; pero también tú ya comprendes que es de necesidad la reforma que aquí se propone, y que alguna vez hay que decir y hacer esta transformación”⁵.

Izendegia 1910ean berrargitaratu Euzko Alderdi Jeltzalearen Euskeraren Bizkai-ordiak Koldo Eleizalderen ardurapean.

Tamalez, Espainiako egoera politikoa mende hasieran ez zen batere egoia eta 1930ean Primo de Riveraren diktadura amaitu arte ez ziren izen hauek hedatu. Diktadura amaitzeak ekarri zuen izenak era ofizialean erabiltzeko aukera eta jaiotza agirietan pixkanaka hasi ziren agertzen.

Izenen erabilera, hala ere, oso alderdikoia izan zen; horrelako izenak soil-soilik EAJ eta ANVko kideek jartzen zituzten. Esan genezake abertzale guztiek erabili ez arren, erabiltzaile guztiak abertzaleak zirela eta ia guztiak EAJ-koak, beste alderdiak, jakina denez, askoz ere txikiagoak baitziren.

Bidea 1937an amaitu zen eta data eman nahi badugu ekainaren 19a azpimarra genezake, izan ere, egun horretan matxinatutako soldaduak sartu baitziren Bilbon. Euskal Herriaren zati txiki bat, Bizkaiko Enkarterri hain justu ere, legezko Gobernuaren agindupean geratu zen baina irabazteko esperantza handirik gabe. Barakaldo bost egun beranduago hartu zuten, done Joane egunean. Handik aurrera ez zen euskal izenik jarri ikertutako epaitegietan. Nahiz eta agindu zehatzik ez egon “*de facto*” erabilera debekatu egin zen. Hurrengo urtean, gerra irabazteko urtebete falta zela, debekua ofizialdu zuten Errolda Zibilaren dekretu baten bitartez:

“Debe señalarse también como origen de anomalías registrales la morbosa exacerbación en algunas provincias del sentimiento regionalista, que llevó a determinados Registros buen número de nombres, que no solamente es-

⁴ Bakar bakarrik hartu zituen tradizioetik bere teoriekin bat zetozen izenak. *Andoni, Andolin, Mikel...* Inoiz izenak moldatu zituen eta, adibidez, Bizkaian ohikoa zen *Santindere*-tik *Ander* sortu.

⁵ 1910eko argitalpenean ageri den 1897ko *Egutegi Bizkattarra*-ren aipua.

tán expresados en idioma distinto al oficial castellano, sino que entrañan una significación contraria a la unidad de la Patria. Tal ocurre en las Vascongadas, por ej., con los nombres de Iñaki, Kepa, Koldobika y otros que denuncian indiscutible significación separatista (...). La España de Franco no puede tolerar agresiones contra la unidad de su idioma, ni la intromisión de nombres que pugnan con su nueva constitución política (...). En todo caso, tratándose de españoles, los nombres deberán consignarse en castellano”⁶.

Baina diktadurarentzat hau ez zen nahikoa izan eta 1939an harago joan zen eta lehenago jarritako izenak ere kendu zituen, Legeen oinarririk sendoenetako bat apurtuta: atzera ezin ezartzea.

“Se consideran [también] nulas las inscripciones que se hallan practicadas en idioma o dialecto distinto del idioma oficial castellano”⁷.

“Se concede un plazo de 60 días [...] a los padres o representantes legales de interesados en inscripciones de nacimientos, que estuviesen viciados con la designación de nombres exóticos, extravagantes y demás comprendidos en la citada disposición [ORDEN, de 18.V.1938], con el objeto de que puedan solicitar la imposición del nombre o nombres que hayan de sustituir a los declarados ilegales.” Art. 4. “El Juez procederá de oficio a tachar el nombre declarado ilegal, una vez que a instancia de parte o de oficio se haya impuesto al inscrito un nombre de los autorizados, haciendo referencia de esta Orden en el margen de las respectivas actas”⁸.

Inkisitore berriek onartu zituzten euskal jatorriko izen bakarrak Andre Mariaren izenak izan ziren, erdal idazkeran emanda eta *María* izenaz lagunduta: *María Begoña*, *María Iciar*, *María Aránzazu*...

2. Ikerketa

Lan honek bi helburu nagusi izan ditu, euskal izenen erabilera ezagutzea eta izenen arloan egon zen zapalkuntza aztertzea.

Lehenago eta behin gerra aurreko euskal izenen benetako erabilera ezagutzeko asmoz egin dut. Euskal Herrian denok, edo askok behintzat, ezagutu dugu debekua jasan duen norbait, baina ikerketa faltak galarazi digu maiztasuna ezagutzea. Horretaz landa, Sabin Aranak asmatu edo zabalduetako izenez gain, beste jatorrietako euskal izenen balizko erabilera ezagutu nahi izan dut, bai eskola berberekoak (-e-z amaitutako neska izenak), baita tradizionalak (*Patxi*) edo beste iturrietakoak (*Aitor*, *Amaia*) ere.

Zapalkuntza izan da aztertu beharreko beste arloa. Nola eta noraino gauzatu zen. Urte hauetan itzulitako izen askoren agiriak ikusi ditut, deigarriena Garaiko *Miren Abertzale* izeneko neska batena, *María* bihurtu zutena. Baina ez bairrik gabe txundigarriena Barakaldoko gertaera izan zen. Aspaldian jakin nuen lagun baten bidez⁹, horko erregistroan *Viva Franco* jartzen zuen zigilu batez ezabatzen zituztela izenak. Harrigarria, ezabatze era hori erroldetako araugintzaren kontrakoa baita. Legeak zehazten zuen itzulpena egiteko hila-beteko epea zegoela eta denbora hori igarota epaileak berak ezabatu behar

⁶ *Reg. Civil*. ORDEN, de 18.V.1938, Art. 1 (B.O. 21.V.1938).

⁷ *Reg. Civil*. ORDEN, de 12.VIII.1938, Art. 2 (B.O. 17.VIII.1938).

⁸ *Reg. Civil*. ORDEN, de 9.II.1939 (B.O. 23.II.1939).

⁹ Emilio Porrás jaunak ekarri zidan bere amaren jaiotza agiria, ikus nezan.

legearen kontrakoa zen izena. Interesgarria da ezagutzea zenbatetan joan ziren umearen gurasoak eta zenbatetan aldatu zuen epaileak berak. Horrekin batera azter daiteke zenbat kasutan joan zen aita, garai hartan familiako burua zena, eta zenbatetan ama edo beste hirugarren bat.

Ikerketa gauzatzean jorratu beharreko beste arlo bi ikusi ditut. Berreskuratutako izenak (kopurua eta bestelako zehaztasunak) eta ezabatutako “besteak”, epaileen ustez “gorrien” izenak zirenak: anarkistak, errepublikazaleak, laikoak, komunistak,... Izen hauek iturri desberdinetakoak direnez; *zentsuratutako beste izenak* izenburuaren azpian sailkatu ditut. Deigarria da talde honetako inork ez duela izena berreskuratu; galtzaileen artean galtzaile.

Ikerketa burutzeko hiri handi bi, Barakaldo eta Bilbo, eta txikiagoak ziren udalerrri batzuk aukeratu ditut: *Agurain, Asparrena, Barrundia, Iruraitz-Gauna, Urduña* eta *Orozko*. Bilbo osoa aztertzea ezinezkoa zenez, dituen erregistroetatik zaharrena aukeratu dut, *Zazpikaleak*, Bilbo Zaharra, Atxuri, Ibaizabal eta San Frantzisko auzoak hartzen dituena. Azken erregistro honetan inskribatzen zituzten Bilboko umezurztegian lagatako umeak.

Aztertutako epean aukeratu ziren erregistroetan errolatutako umeak:

Agurain	303
Asparrena	340
Barrundia	96
Iruraitz-Gauna	124
Barakaldo	4.338
Bilbo (Zazpikaleak)	8.463
Orozko	436
Urduña	540
Guztira	14.640

Osagarri moduan, eta oso neurri apalean, garai hartan jaio eta izenak itzularazitako lekuko batzuk elkarrizketatu ditut. Interesgarria izango litzateke gehiago elkarrizketatzea, baina zail da horrelakoak aurkitzea, asko betiko joi-anak baitira.

Aukeratutako epea diktadura bien artekoa izan da, hots, 1930-1937 epea. Zoritxarrez, Barakaldoko erregistroan, kanpoko arrazoiak direla eta, eragozpenak izan ditut¹⁰ eta 1936. urtea osorik aztertu gabe laga behar izan dut ikerketa. Baina lana amaitutzat eman baino lehen aukera izan nuen 1937.eko liburuaz aztertzeko. Horregatik, Barakaldoko datuetan hutsunea dago 1936an.

Azpimarratu behar da erregistro guztietan saiatu direla ahalik eta gehien laguntzen, nahiz eta horretarako ikerketarako inolako azpiegiturarik ez izan. Horretaz gain, ordutegi arazoak ere egon dira liburuak esku artean behar baitituzte. Ene esker beroena ema nahi diet erregistroetako langile guztiei, bereziki Lautada, Orozko eta Urduñakoei, emandako laguntzagatik.

Datuak bildu eta kudeatzeko Access-2000 programan eraikitako aplikazio bat sortu eta erabili dut.

¹⁰ Epaitegietako segurtasun arrazoiak direla eta, lana eten behar izan nuen.

IKERKETAREN EMAITZAK

1. Izenen erabilera debekua baino lehen

Nahiz eta teoriar erregistro guztietan prozedura bera segitu, hau ez da zeharo egia, eta leku batetik bestera alde handia dago erroldatzean eta bereziki debekua indarrean jartzean.

Euskal izenak erregistratzeko bideak desberdinak izan ziren. Bilbon izenak euskaraz ageri dira eta atzean parentesi artean itzulpena, 1937ko banaka batzuetan izan ezik. Azken hauetan euskal izena huts-hutsik ageri da. Barakaldon ere euskarazko izenaren atzean parentesi artean ageri da itzulpena, baina 1935etik aurrera euskara hutsez ageri dira. Urduñan euskal eta erdal izenak elkarren ondoan azaltzen dira, aurrean euskarazkoa eta atzean erdarazkoa. Salbuespena azken izen biak dira, euskara hutsez baitude. Orozko eta Ekialdeko Lautadako herrietan izenak euskara hutsez daude. Guztiarekin, deigarria da Barakaldon izendapen bi, lehenengoa 1931ean eta bestea 1932an, eta Asparrenean hiru, Sabin Aranek proposatutako egitura jarraituz agertzea: *Plentzia eta Zornotza'tar Kepa Mirena*¹¹.

Erabilitako izen gehienak Sabin Aranaren izendegikoak izan ziren, baina bazen proposamen horri jarraikiz asmatutakoren bat (*Usune* [Paloma], *Jesuse*), izen tradizionalak (*Aingeru*, *Maitte*, *Maitena*, *Jose txu* eta *Patxi*), berriak (*Bizkentzi*, *Kerman*, *Ume Josuren Teresetxu*), literaturakoak (*Aitor* eta *Amaia*), Andre Mariarenak (*Arantzazu*, *Begoña* eta *Itziar*) eta bestelako iturrietakoak (*Mirentxu*, *Oldargi* [Renacimiento]). 956 umeetatik 932k Sabinoren eskolako izena zuten.

Nesken artean izenik erabilienak *Miren*, gehienbat beste izen batez hornituta, eta *Edurne* izan ziren, eta mutilen artean *Iñaki*, *Joseba* eta *Jon*. Deigarria da gero oso erabiliak izan diren *Gaizka* eta *Gorka* behin baino ez agertzea.

Agiriek ez dute gurasoen pentsaeraren berri ematen, baina orduko leku-koen bidez badakigu euskal izenak abertzaletasunarekin estuki lotuta zeudela. Deiturak begiratzen baditugu 989tik 728k deitura biak Euskal Herrikoak zituztela ikusiko dugu. Hala ere, gurasoen jatorria begiratzean gehien gurasoak bertakoak ziren, edo gutxienez haietako bat. Horregatik, harrigarria da 1937.eko maiatzaren bian jaio eta euskal izena zuen ume baten familia osoa Burgoskoa izatea. Honek adierazten digu euskal izenak hedatzen ari zirela. Zentsuratutako gainerako izenen artean, berriz, deitura gehienak kanpotarrak dira; bakar batek ditu deitura biak Euskal Herrikoak eta hamabik deiturretako bat.

Bilboko erregistroko zortzi umeren deiturak euskal idazkeraz ageri dira: *Aldatz*, *Azkue*, *Ellakuria*, *Lapatza*, *Meatza* eta *Otsa*.

Aztertutako epaitegietan euskal izenaz erroldatutako azkena, *Miren Arantzazu*¹², 1937eko ekainaren hamaseian jaio zen Barakaldon eta Bilboko azkena ekainaren hamabian, matxinatuek hiria hartu baino zazpi egun lehenago. Lautadako azkena 1936.eko ekainaren hamalaukoa da. Kontuan hartu behar

¹¹ Legeak ezartzen dituen mugak direla eta, asmatutako deiturak dira.

¹² 1982an berreskuratu zuen izena.

da armada uztailearen hemezortzian matxinatu zela eta inguru hori haien esku gertatu zela hasieratik.

Gorago esan bezala, Bilboko erregistroan umezurtz asko erregistratzen ziren eta hauen arteko seik euskal izena zuten: *Aintzane, Garbiñe, Iñaki* (2), *Imanol* eta *Jon*. Arrunta zen umea umezurztegian uztean paper batean zenbait datu idatzirik ematea. Paper horietan, sarri, zergatik utzi behar izan zuten, beharturik egiten zutela, eta ahal bezain pronto berreskuratuko zutela esateaz gain, izena ere ematen zioten umeari. Bilbon aztertutako sei hauen artean ama batek berreskuratu zuen alaba urte bat pasa eta gero.

Izenak oro har ongi idatzita ageri arren badira huts batzuk: *Agurce* (*Agurtze*), *Aranchasu* (*Arantzazu*), *Arguiñe*, *Egusquiñe*, *Erreguiñe*, *Euqueni*, *Garbile*, *Gordobequi* (*Koldobike*), *Inaki*, *Iñaqi*, *Késar*, *Koldobica*, *Mirenchu*, *Nicole*, *Oldargui*, *Pachi*, *Panchesca*, *Suriñe*, *Teresechu*, *Yoseba* eta *Yosu*.

Emaitzetan euskal izenez gain diktadorea hil ostean euskaratutakoak (1977an jarriak) eta zentsuratutako gainerakoak izenak ere ageri dira.

Emaitzak herriz herri:

Agurain ¹³	Urtea	Jaioak	Euskal izenak
	1929-1933	107	4 (% 3,73)
	1933-1936	196	13 (% 6,63)
	1930-36	303	17 (%5,61)

1931 (1), 1932 (1), 1933 (2), 1934 (4), 1935 (2) eta 1936 (7)

Asparrena	Urtea	Jaioak	Euskal izenak
	1930-37	340	8 (% 2,35)

1930 (1), 1931 (1), 1933 (1), 1934 (2) eta 1935 (3)

Barrundia	Urtea	Jaioak	Euskal izenak
	1934	33	3 (% 9,09)
	1935	32	-
	1936	31	2 (% 6,45)
	1934-36	96	5 (% 5,20)

Iruraitz-Gauna	Urtea	Jaioak	Euskal izenak
	1930-37	124	2 (% 0,5)

1932an izen bat eta 1936an beste bat.

¹³ Lautada lehenago hartu zuen matxinatutako armadak eta 1936an debekatu ziren euskal izenak.

Barakaldo ¹⁴	Urtea	Jaiolak	Euskal izenak	1977an jarriak	Zentsuratutako beste izenak
	1930	411	7 (% 1,70)	1	-
	1931	904	40 (% 4,24)	1	-
	1932	783	52 (% 6,64)	2	5 (% 0,63)
	1933	789	65 (% 8,23)	-	19 (% 2,40)
	1934	714	78 (% 10,86)	4	17 (% 2,38)
	1935	395	42 (% 10,63)	2	7 (% 1,77)
	1936 ¹⁵	85	8 (% 9,41)	1	1 (% 1,17)
	1937	257	22 (% 8,56)	-	12 (% 4,66)
	1930-35	4.338	314 (% 7,23)	9 (% 0,20)	61 (% 1,40)

Bilbo	Urtea	Jaiolak	Euskal izenak	1977an jarriak	Zentsuratutako beste izenak
	1930	1.094	16 (% 1,46)	-	-
	1931	1.104	27 (% 2,44)	2	-
	1932	1.315	74 (% 5,62)	2	2 (% 0,32)
	1933	1.217	96 (% 7,88)	4	2 (% 0,32)
	1934	1.183	102 (% 8,62)	4	-
	1935	1.084	89 (% 8,21)	4	1 (% 0,16)
	1936	1.291	126 (% 9,75)	3	4 (% 0,31)
	1937	175	40 (% 22,85)	1	20 (% 11,42)
	1930-37	8.463	570 (% 6,73)	20 (% 0,23)	27 (% 0,31)

Orozko ¹⁶	Urtea	Jaiolak	Euskal izenak	Zentsuratutako beste izenak
	1931	75	1 (% 1,33)	
	1932	75	4 (% 5,33)	1
	1933	73	12 (% 16,43)	
	1934	69	11 (% 15,94)	
	1935	61	8 (% 13,11)	
	1936	66	9 (% 13,63)	
	1937 ¹⁷	17	4 (% 32,52)	1
	1931-37	436	49 (% 11,23)	2 (% 0,45)

Urduña	Urtea	Jaiolak	Euskal izenak	1977an jarriak
	1930-37	540	34 (% 6,29)	2¹⁸

1931 (1), 1932 (5), 1933 (5), 1934 (8), 1935 (3), 1936 (9) eta 1937 (3).

¹⁴ Gorago esan bezala, segurtasun arrazoiengatik ezin izan zen ikerketa amaitu eta 131 eta 132 liburuk arakatu gabe utzi behar izan dira.

¹⁵ Ez dago urte osoa, bakarrik 133. liburukikoak.

¹⁶ 1930ean ez zioten euskal izena inori ezarri.

¹⁷ Urtearen lehenengo bost hilabeteak.

¹⁸ Bat 1930ekoa eta bestea 1933koa.

2. Izenen artean dagoen sexuen banaketa

Landu nahi nuen beste arloa izenen eta sexuaren arteko harremana zen. Gaur egun Europan ohikoa da sexuen artean desberdintasunak agertzea erabilera eta horren ondorioz emakumeek izen gehiago erabiltzeaz gain, maiztasun gutxiagorekin erabiltzen dituzte izenak. Hori dela eta, gehien erabiltzen diren izenak mutilenak izaten dira. Badirudi, ez dela hain beharrezkoa mutikoek izen berezia izatea, ez duela inporta klase erdiak izen bera izatea, baina bai ostera neskatila bada, horrelakoetan gehiago zaintzen da¹⁹.

Jarraian ageri diren laukietan azaltzen da zenbat neska eta mutil erroldatu ziren euskal izenez epaitegiz epaitegi eta orotara. Bilbo eta Barakaldon zentsuratutako gainerako izenen berri ere ematen da, beste udalerrietan ez baitago horrelakorik. Parentesi arteko zenbakia erroldatzean erdal izena izan baina Franco hil ostean euskaratutakoei dagokie.

Barakaldo	Neska	Mutila
Euskal izena	201 (+5 berri)	122 (+5 berri)
Zentsuratutako beste izenak	62	26

Bilbo	Neska	Mutila
Euskal izena	212 (+9 berri)	185 (+11 berri)
Zentsuratutako beste izenak	20	8

Lautada	Neska	Mutila
Euskal izena	13	19

Orozko	Neska	Mutila
Euskal izena	28 (+ berri bat)	21 (+ berri bat)

Urduña	Neska	Mutila
Euskal izena	15	19 (+2 berri)

Guztira	Neska	Mutila
Euskal izena	469 (+15 berri)	366 (17+berri)
Zentsuratutako beste izenak	82	34

Argi dago askoz ere erabiliagoak izan zirela euskal izenak emakumeak izendatzeko, baina joera desberdina dago hiri eta herrietan. Hirietan, eta Gerra aurreko Barakaldo hiritzat jo behar dugu, emakume gehiagok izan zuten euskal izena eta herrietan, berriz, gizonek. Badirudi honen azalpena soziologikoa dela. Herrietako giroan ez da ongi ikusten emakumeek izaera “aurrera-koia” izatea eta horren ondorioz kontserbatzaileagoak izaten dira hizkuntza arloan. Hirietan ez da horrelakorik gertatzen eta onartuago dago bestelako jarrerak izatea. Zernahi gisaz, hiri eta herrien arteko jokabideari buruzko ondorio erabatekoak izateko ikerketa zabalagoa egin beharko litzateke.


¹⁹ Norberaren esperientzia ere hartu behar da gogoan: gure aitaren etxean gizonek erdal izena zuten bitartean emakumeek euskal izena zuten (*Santiago, Julian, Miren, Edurne eta Pedro*).

Zentsuratutako gainerako izenak begiratzen baditugu ikusiko dugu hor ere nagusiak direla emakume izenak, baina herrietan ez dagoela horrelako izenik.

3. Debekua

Dekretuak argi adierazten zuen debekatutako izenak ezabatu behar zirela eta ordezkoa jarri, baina hau ez zen leku guztietan berdin bete. Dekretua itsu-itsuan bete zen Asparrenean. Bertan gurasoak epaitegira joatera eta izenen aldaketa sinatzera behartu zituzten.

Barakaldokon 1931eko abenduaren hogeita hamarretik aurrera jaiotakoei *Viva Franco* eta *Viva España* zioen zigilu bi erabiliz ezabatzen zizkieten euskal izenak, atzean ageri zen erdarazko itzulpena izentzat emanda. Oso kasu gutxitan ageri da aurreko zigiluz gain ebazpena ofiziala, banakako bat 1931.ekoa da: “En virtud de la O. De 9 de febrero último a esta inscripción se imponen los nombres de Rosario y se tacha el que figuraba por ilegal”.



Zentsuratutako gainerako izenen kasuetan, beste izenik ez zegoenez gero, *V. F.* eta *V. E.* zioen zigiluz gain, izen aldaketaren berri ematen zuen testu bat ere gaineratzen zuten, aurrekoa bezalakoa dena: “En virtud de la O. de Feb. Ultimo a este inscripto se le imponel nombre de y se tacha el que figura por ilegal”.

Orozkon euskal izenak besterik ez zenez azaltzen zenbaitetan izenak ezabatu eta ohar bat gaineratu zuten: “Nota. Por orden del Ministerio de Justicia queda rectificado el nombre por el”.

Gertaera ez ohikoak egon ziren Barakaldon, deigarriena 1932eko bat. Kasu horretan, ez dakigu zergatik, euskal izena zeharo ezabatu zuten tinta kenduz eta geratu zen hondar bakarra finagoa den papera baino ez da. Beste behin edo bitan kontrakoa gertatu zen: izena ezabatu gabe egon arren debekatuta zegoen eta heriotza agirian itzulita dago.

Dena dela, Barakaldoko inkisitoreen gorrotoa argi geratzen da hiru adibide hauetan: guraso biak alemanak zituen ume bati izena itzuli zioten, *Hermann Ludwig Heidrich* -> *Germán Luis Enrique*, *Amor* izeneko andre bati aldatu eta *María del Rosario* ezarri zioten, eta urte bat hilda zeraman mutiko bati ezabatu zioten izena atzerrikoa zelako. *Olga* izena ere behin ezabatu zuten.

Barakaldon ageri da izen ez kristaua eta euskal izena biltzen dituen, edo zituen, pertsona bakarra, *Amapola Gaizkane*. Kasu honetan lehenengoa ezabatu, lore izena izan arren zuen kolorea ez baitzen onargarria, eta bigarrena itzuli zuten: *Salvadora*.

Izena aldatzera joan ziren umeen arduradunak

Euskal izenen kasuan aldaketa dagoen gehienetan ez da azaltzen nork egin zuen aldaketa, kasu gutxi batzuetan izan ezik. Gainerakoen artean batz bestea

gehiagotan ageri da itzultzailea, izen berria eman behar baitzen (*Lenin* -> *José Antonio*²⁰, *Libertad* -> *Apolonia*, *Armonia* -> *Basilisa*, *Bélgica* -> *Cirila*...).

Asparrena:	Aita:	4
	Ama:	2
	Aitita:	1
	Osaba:	1
Barakaldo:		
Euskal izenak:	Ama:	25 ²¹
	Aita:	17 ²²
	Izeko:	5
	Aitita:	1
	Lehengusua:	1
	Epailea:	1
	Auzokide bat:	1
Zentsuratutako beste izenak:	Epailea:	9
	Ama:	4 (bat sinatu gabe ez baitzekien)
	Aita:	4
	Aitita:	1
	Auzoko bat:	1
Bilbo		
Euskal izenak:	Epailea:	1 ²³
Zentsuratutako beste izenak:	Epailea:	8 ²⁴
	Ama:	1 (1939eko apirilaren 20an)

Bilbon euskal izen guztiak debekatu zituzten baina ez guztiak fisikoki ezabatu. Gainerako izen “ilegal” guztiak (laikoak) ez zituzten ezabatu, soil-soilik oso agerikoak zirenak, *Lenin*, *Marx* eta *Libertad* batzuk, azken hauek geroago. Hala ere, 9 *Libertad* ez zituzten ezabatu. Harrigarria da 1937ko lehengo sei hilabetetan *Libertad* neska izena gehiago erabiltzea aurreko urte guztietan baino. Hau gutxi balitz, haietako bi ezkondu gabeko amen alabak izan ziren. *Libertad* izenak berandu arte iraun zuen, eta badirudi aldaketa neska horiek eskolaratzearekin bat etorri zela 1940-1950ean burutu baitziren.

Agurainen izenak fisikoki ezabatu ez arren badakigu debekatu zirela. Kasu batean ageri da berreskuratzearen lekukotza eta besteetan ezkontza zein heriotza agerietan erdal izenaz ageri dira. Guztiarekin ere, hiritar batek euskal izena gorde zuen.

Itzulpenak orokorrean oso zehatzak izan ziren, kasu gehienetan ondoan erdal izena bazegoelako, baina hala eta guztiz ere itzulpen trakets batzuk baziren: *Iziar* > *Estrella*, *Libe* > *Liberata*, *Eguskiñe* > *Agustina* eta *Soledad*, *Jasone* > *Concepción*, *Julene* > *Julia*, *Karmele* > *Carmela*. Hala ere, noizean behin, izena jarri zuenaren hizkuntza gaitasuna agerikoa da: *Matane* > *Nuestra Señora del Amor Hermoso*.

²⁰ Argi dago Falangearen sortzailea izen zen José Antonio Primo de Riverarengatik eman zitzaio-
la izen hori.

²¹ 1939ko martxoaren 13tik apirilaren 22 bitartean hamasei.

²² 1939ko martxoaren 4tik apirilaren 20 bitartean data duten hamarrek.

²³ 1937ko apirilean jaiotako ume bati, gainontzeko guztiak debekatu ziren inolako oharririk egin gabe.

²⁴ Haietatik zortzi oso berandu: 1944 [2], 1945, 1951 [2], 1955, 1958, 1967.

Ezabatu ziren izenen kopurua herrika.

Herria	Euskal izenak	Ezabatutakoak	Zentsuratutako beste izenak	Ezabatutakoak
Barakaldo	323	257 (% 79,56)	62	62 (% 100,00)
Bilbo	570	41 (% 7,19)	27	9 (% 33,33)
Lautada ²⁵	13	12 (% 92,30)	-	-
Orozko	49	7 (% 14,28)	-	-
Urduña	34	34 (% 100,00)	-	-
Guztira	989	351 (% 35,49)	89	71 (% 80,00)

Egoera berriarekin bat ez zetozen gainerako izenak (*Amor, Lenin, Libertad...*) ezabatzeaz gain beste izen berriez ordezkatu behar izan zituzten. Euskal izenen kasuan ordezkoak ezagunak ziren eta, gainera, kasu gehienetan agirian bertan ageri ziren parentesi artean.

4. Izenen berreskuratzea

Izenen berreskuratzea zenbait kasutan debekua bezain nahasia izan zen. Bilbon ezabatu gabe zeuden euskal izen batzuk berreskuratzeko ez zuten inolako espedienterik egin, boligrafo urdin batez ezabatu zuten erdal izena. Baina hau salbuespena izan zen. Kasu gehienetan epaileak onartu behar izan du berreskuraketa, eta ez dago bereizketarik izena aldatzera joan edo berreskuratzea doazen artean.

Berreskuratze urteak²⁶

Urtea	Barakaldo	Bilbo	Besteak	Guztira	%
1977	17	18	Urduña 3	38	%24,05
1978	1	2		3	
1979	3	3	Urduña 1	7	
1980-90	15	20	Orozko 1	36	
1991-04	17	29	Orozko eta Urduña 2	48	
Datarik ez	3	22	Agurain 1	26	%16,45
Guztira	56	94	8	158	

Berreskuratze urtea aztertzen badugu ikusten da berehala jende asko irrikatan zegoela. Ehuneko hogeita lauk 1977an jo zuen epaitegietara euskal izena berriro izateko asmoz. Izen horiei data zehaztu gabekoak gehitzen badizkiegu %40 da. Baina datu hotz hauen atzean dagoen pertsonak izan behar ditugu gogoan. 2004. urtean izena berreskuratu zutenek 72 eta 74 urte zituzten

²⁵ Asparrena eta Barrundia. Ezabatu ez zuten izen bakarra Barrundian izan zen, eta ez zen Sabin Aranaren eskolakoa, tradizionala baizik: *Patxi*.

²⁶ Bakar bakarrik dakigu data zehatza 136 kasutan, gainerakoetan 1977-79 artean izan zirela susmatu arren ez dago egiaztatzerik.

eta ez da falta izenaren aldaketaren berri ematen duen inskripzioaren ondoren heriotzarena duenik.

Debekuaren datuak:

Debekatutakoak:.....	1.078	
Euskarazkoak:.....	989	(% 91,74)
Zentsuratutako beste izenak:	89	(% 8,25)
Berreskuratutakoak:.....	158	(%14,65), guztiak euskarazko izenak.

Hemen ageri dira ofizialki izena berreskuratu dutenak, izan ere, jende askok eguneroko bizitzan euskal izena erabili arren ez du jatorrizko izena berreskuratu, besteak beste horrek ekarriko lituzkeen arazo eta buruhaustengatik. Horretaz gain, ezin dugu ahortzi beste batzuek ez zutela izena berreskuratzeko aukerarik izan, hil baitziren lehenago. Azkenik gogoan izan behar ditugu atzerrira joan behar izan zutenak.

Bilboko erregistroan euskal izena ezabatu zutenetik zazpik nazionalitatea berreskuratu zuten (4 Venezuelan, eta besteak Kanada, Italia eta Mexikon). Barakaldoko zerrendetan nazionalitatea berreskuratu duten bi ageri dira eta haietako emakume bat nazionalitatea berreskuratzean euskal izenaz ageri da, nahiz eta erregistroan ezabatuta eduki.

ONDORIOAK

- Euskal izenen erabilera uste baino arruntagoa izan zen. Sabinoren izenen ondoan tradizionalak eta beste iturrietakoak aurkitzea ezustea izan da. Argi dago 30-36 urteen artean erabilera igotzen joan zela pixkanaka-pixkanaka, baina Gerrak areagotu zuen izen hauen erabilera eta Bilbon esaterako % 9,75tik % 22,85era pasatu zen. Beste horrenbeste geratu zen izen laikoekin.
- Legea ez zen herri guztietan berdin bete, baina nabardurak alde batera utzita izen guztiak ezabatu ziren.
- Bilbon, 50 izen baino ez ziren fisikoki ezabatu, baina gainerako guztiak “ezabatutzat” jo ziren eta Franco hil ostean berreskuratu nahi izan zutenek epaileari eskatu behar izan zioten. Zigortutakoei ez zitzaien barkamena eskatu eta mesede moduan eskatu behar izan zuten haien izena berreskuratzea.
- Kasu bitan izena aldatzera joan zena auzoko bat izan zen, erraz imajina dezakegu non zeuden gurasoak: ihes eginda, kartzelan edo hilda. Ume hauen guztien arteko bat izekok adoptatu behar izan zuen, eta 1999an berreskuratu zuen gurasoek Gernika bonbardatua izateko bezperan eman zioten izena.
- Gutxi izan ziren euskal izena berreskuratu zutenak, bakar bat ere ez zen egon izen lakoan artean. Batzuek betiko galdu zuten jaiotzean hartutako izena eta beste batzuk ohitu ziren izen bat erabili eta beste bat ofizial izaten.

AZKEN OHARRAK

Hasieran esan bezala, bizitzaren arlo guztietan erabiltzen ditugu izenak. Guztiok dugu izenez hornitutako helbide bat, esaterako, baina ezbairik gabe

gure ponte izena, kristaua izan ala ez, beste edozer baino *gureagoa* da. Amak eta aitak eman ziguten eta beraiek guri esandako lehenengo hitzetako batzuk dira eta geure burua munduan kokatzeko balio dute. Horregatik zail da igaritzea zer izan zen ume batentzat egun batetik bestera bere izena debekatu zutela ikustea.

Ume bakoitzaren historia desberdina da, eta asko eta asko hilda edo kanpoan egon arren lortu dut banaka batzuen oroitzapenak biltzea.

Batzuetan umeak oso gazteak ziren eta ez zuten debekuaren berri izan etxekoek euskal izena erabat baztertu baitzuten. Deustuko andre batek jakin zuen erregistroan *Jaione* zela ezkontzeko jaiotze agiria eskatzean. Gerra galdu osteko zapalkuntzan haren familia ez zen euskal izena erabiltzera ausartu eta betiko galdu zuen.

Beste batzuek, berriz, izenari eutsi zioten. Gogoan dut euskal izena gorde zuen eta arestian hil den Portugaleteko emakume batek ongi gogoratzen zuela bere amari abertzalea izateagatik ilea moztu eta trufen artean etxeko ataria garbitzera behartu zutela txistua eta zikinkeria botatzen zioten bitartean. Andre horrentzat euskal izena erabiltzea diktadurari aurre egiteko bide bakarra zen eta neurri batean erabilera berak aske egiten zuen.

Andre batek ez zuen arazo larririk gogoratzen Gerra osteko Barakaldon, bakar bakarrik moja batek esan ziola *Agurtzane* txakur izena zela eta aurre-rantzean *María Jesus* deituko ziola. Etxean gertatutakoaren berri eman eta mojarri kasurik ez egiteko esan zioten. Horrela egin zuen eta zorionez aste bat pasa eta gero moja beste ikastetxera joatean amaitu zen eraso.

Zerrendak :

1) Bildutako izenen zerrendak

Zerrendak lau atal nagusitan daude banatuta. Lehenengo atalean umeak erroldatzean emandako izenak (*Miren Edurne, Jon Iñaki, Agurtzane...*) eta ezarritako itzulpenak ageri dira. Bigarrenean Franco hil eta gero jabeek hala eskatuta euskaratu zirenak. Hirugarrenean debekatu ziren gainerako izenak (*Amor, Germinal, Libertad...*) eta ordezkatzeko ipinitako izenak bildu dira. Azken atalean erabilitako euskal izen guztiak ageri dira maiztasuna ezagutzeko. Azken zerrenda honetan, aurrekoetan ez bezala, banatu dira jatorriz elkarrekin eman ziren izenak eta *Miren* guztiak batera zenbatu dira bakanak edo konposatuak izan ziren kontuan hartu gabe.

A) Euskal izenak eta itzulpena

<u>Izena</u>	<u>Itzulpena</u>
<i>Abarne Miren Itziar</i>	Ramos María Iciar
<i>Agurtzane Amaia</i>	Rosario
<i>Agurtzane (3)</i>	Rosario
<i>Aingeru (2)</i>	Ángel
<i>Aintzane (3)</i>	Gloria
<i>Aitor</i>	Aitor
<i>Alesander Kepa</i>	Alejandro Pedro
<i>Amaia Igone</i>	Ascensión
<i>Amaia</i>	Amaya Aurora

<i>Amaia</i>	Angélica Amaya
<i>Amaia</i> ²⁷	Fin
<i>Amaia</i>	María
<i>Ana Mari</i>	Ana María
<i>Ander Gergori</i> (2)	Andrés Gregorio
<i>Ander Karla</i>	Andrés Carlos
<i>Ander</i> (2)	Andrés
<i>Andoni</i> (9)	Antonio
<i>Andoni Joseba</i>	Antonio José
<i>Andoni Mirena</i>	Antonio María
<i>Andoni Pi</i>	Antonio Pío
<i>Ane Elixabete</i>	Ana Isabel
<i>Ane Miren Pantzeske</i>	Ana María Francisca
<i>Ane Miren Sorne</i>	Ana María Concepción
<i>Ane Miren</i> (4)	Ana María
<i>Argiñe</i>	Luz
<i>Augustin</i>	Agustín
<i>Aurelia Aintxane</i>	Gloria
<i>Bakarne Deñe Etorne</i>	Soledad Anunciación Pentecostés
<i>Begoña Miren</i>	Begoña María
<i>Belbiñe</i>	Delfina
<i>Berbis</i>	Alfredo
